


LEITZA 2018

A wooden sign with a pen and a bell. The sign is made of a circular piece of wood and is mounted on a larger wooden structure. A blue and white plaid ribbon is tied around the top of the sign. A silver pen is resting on the sign. A large brass bell is hanging to the left of the sign. The background shows a blue sky, green hills, and a building with a red roof.

Tiburitzio
Donearen
Pestak
40. zenbakie

AZALAREN LEHIAKETAN PARTE HARTU DUTEN KARTELAK



"INAZIO"
IÑAKI ETXEBERRIA



"PREST"
OIAN ALDUNTZIN



"IN PESTA ERRESPETOTIK"
OIAN ALDUNTZIN



"ZIRATE"
AITOR ZABALETA



"GIROA"
ARANTXA AZPIROZ



"ARTADI TXARANGA"
JAVIER ARANBURU

Eskerrak eman parte hartu duzuen guziri eta ZORIONAK irabazle izan diren LEIRE RETEGI, HAIZEA SAENZ, SAIOA SAGASTIBELTZA, PAULA PERURENA eta JON ARRIZURIETA-ri "Bizia bera da: deus ez eta pesta" kartelarekin.

ALKATEAREN AGURRA

Kaixo leitzar zein bisitari:

Oharkabeen, horren maiteak ditugun Pesta nagusien atarian gaude berriz ere. Egunerokotasunean izaten ditugun kezka eta zamak alde batera utzi, eta lagunartean zein familiarekin egun politak eta alaiak igarotzeko parada ezin hobea izaten da.

Oharkabeen ibili ez direnak, aldiz, Pesta Batzordeko kideak izan dira; aurten ere hilabeteetan ederki landutako programa oparoa eskaini baitigute. Lanketa guztiak bere osotasunean aitortpena merezi badu ere, aurten gazte eguna antolatzeko egin den esfortzua nabarmentzekoa dela iruditzen zait. Egunero adin eta zaletasun ezberdinetako jendea asetzeko moduko ekitaldiak egonen badira ere, aurtengo pestetako astelehenean bereziki gazteei zuzendutako programazio bikaina osatu dute. Herriko gazte jendeak bere iritzia eta proposamenak luzatzeko aukera izan du gainera, eta honek are eta gehiago borobiltzen du prestatutako egitaraua.

Ildo beretik, aurten lehenbizikoz herritarrek aukeratu ahal izan dugu Pestari hasiera nork emanen dion. Parte-hartzea eta auzolana ikur hartuta, gure herriko Pestak herrikoiak eta aberatsak izateko bermea izanen dugu etorkizunean ere. Zorionak beraz, alde batetik, parte hartu duzuen ehundaka herritarrei, eta beste aldetik, horrenbeste babes jaso duzuen hautagai guztiei ere, bejondeizuela!

Ezin dut aipatu gabe utzi borroka feministak Euskal Herri osoan egiten ari den lan itzela. Mugimendu feministak urteak daramatza kalean, etxeetan, ikasgeletan, jaietan, eta beste hainbat eremutan, pertsona guztiak eskubide berdinak izateko borrokan. Denbora luzea daramagu, denok batera, eraso sexistarik gabeko jaiak lortzeko lanean, eta jada bide horretan emandako urratsak ukaezinak dira. Leitzan ere, denok askatasunez pestaz gozatzeko eskubidea dugunez, ez ditugu eraso sexistak onartuko.

Bukatu aurretik, gogora ekarri nahi dut aurten izango direla gure legealdiaren barruan ospatuko diren azkeneko Pestak. Zinegotzi guztiei eta Udaleko langileei esker berezi bat eskaintzeko aukera aprobetxatu nahi nuke, eta noski, hautetsi izan gabe ere haien laguntza eman diguzuen guzti-guztiei ere berdin. Hamaika asmo eta erronka aurrera atera ditugu denon artean eta gerora ere, asko izanen dira egin beharrekoak, herri bizibizia baitugu Leitzan. Herrigintza, gu guztiona den proiektu kolektibo ilusionagarriena da.

Euskal Herrian egun bizi dugun egoeraz eta oraindik gainditzeko dagoen gatazkari buruz, Ken Zazpi taldeak abesti eder batean dioena ekarri nahi nuke hona, ez nukeelako asmatuko horren hitz gutxitan hobeki adierazten esan nahi dudana:

Lur zatitu honetan
itxaropen doinu hau
hegalean zabalduz goaz
kimu berriak landatuz
bidezain luze honetan
aurrera goaz
ta gaua argitzen doa



Leitzako Udala



atekabeltz
herrigunea





ABUZTUAK 4 LARUNBATA



REPARTO EUNE

14:00 Eskalarien bazkaria Aurreran.

16:00 Auzoz auzo, PLAZAOLA
aldizkariaren banaketa; trikitilari,
txistulari, akordeolari eta
gaiteroen laguntzaz.



ABUZTUAK 5

IGANDEA

UMEEN EUNE

- 09:00** Diana txistularikin.
- 10:00** Korporazio txikiak udal ordezkariekin gosalduko dute.
- 10:30** Gurpildun zezenen entzierroa.
- Ondoren** Aurrerako Pilota Eskolako gazteak arituko dira plazan.
- 11:30** Umeen txupinazoa Udaletxeko balkoitik.
- 11:30-13:30** Puzgarriak eta jokoak.
- 16:00-18:00** Puzgarriak eta jokoak.
- 18:30** Aurrerako dantzari ttikien ikuskizuna eta umeen ingurutxo IREKIA plazan.
- Ondoren** Goxokiak banatuko dira
- Ondoren** Erraldoiak aterako dira plazatik.
- 20:00** Buruhaundiak aterako dira Aurreratik.
- 20:00-00:00** JOXE MENDIZABAL plazan.





ABUZTUAK 10 OSTIRALA

PESTA BEZPERA



- 11:30** Kuadrillen arteko herri-kirolak plazan.
- 13:00** Elkartasun manifa.
- 13:30** Jubilatuen bazkaria.
- 14:00** Herri bazkaria karrapen, musikaz alaiturik.
- 18:00** TXUPINAZOA eta Plazaola Aldizkariko azalen egileei saria (heldu ta gazte).

Ondoren Incansables txaranga, txistulariak, erraldoiak, gaiteroak eta buruhaundiak herrian barrena kalejiran aterako dira.

Ondoren Zuzeneko musika emanaldia Aurrerako atarian.

21:30 Suzko zezena.

23:00 TXIMELETA taldea plazan.

01:00 Incansables Txarangaren erronda.



ABUZTUAK II

LARUNBATA

TIBURTZIO DONERAREN EGUNA

- 08:00** Diana txistulariekin.
- 09:00** Entzierroa eta behiak plazan.
- 10:30** Meza.
- Ondoren** Hameiketakoa karrapen.
- 12:00** Aurrera Dantza Taldeko EZPATADANTZARIAK plazan.
- Ondoren** Afizionatuen arteko pilota partidak plazan.
- 13:00** Aurreratik Incansables txaranga aterako da.
- 17:00** Leitzeko Bertso Eskolako Bersolariak Aurreran.
- 18:00** Zezenak plazan.
- 19:00** **Herri kirolak plazan**
Lasto altxatzen, lasto botatzen eta ingude altxatzen, Jon Lapazaran eta Garbiñe Lopez de Auralde.
Harri jasotzen: Karmele eta Jon Gisasola
Giza proba: Joseba Santxez
- Ondoren** Goxokiak banatuko dira.
- 19:30** Incansables txaranga eta buruhaundiak.
- 21:00** Leitzeko ingurutxoak nahi duen guztiarentzat.
- Ondoren** Suzko zezena.
- 23:00** Kontzertuak plazan; KOBAN eta KATEZ taldeak
- 01:00** Incansables txarangaren erronda.





ABUZTUAK 12

IGANDEA

PESTA BIARRENA



- 08:00** Diana txistulariekin.
- 09:00** Entzierroa eta behiak plazan.
- 11:00** Pilota partida plazan
Patri Espinar / Maite Ruiz de Larramendi
Olatz Arrizabalaga / Leire Etxaniz
- 12:00** Paella lehiaketa.
- 12:00** Erraldoiak aterako dira plazatik.
- 13:00** Incansables txaranga Aurretatik aterako da.
- 17:30** Zezenak plazan.
- 19:00** Aurrerako dantzarien emanaldia plazan.
- Ondoren** goxokiak banatuko dira.
- 20:00** Rock Kanean Peritzeko ataritik abittuta.
- 20:30** Incansables txaranga eta buruhaundiak Aurreratik aterako dira.
- 22:00** Suzko zezena.
- 23:00** OIHAN VEGA plazan.
- 03:00** Leitzeko ingurutxoia nahi duen guziarentzat.

ABUZTUAK 13 ASTELEHENA



PESTA HIRUGARRENA

- 08:00** Dianan txistulariekin.
- 09:00** Entzierroa eta behiak plazan.
- 11:30** Txoro Txaranga behiko txoznatik abittuta.
- 13:00** Incansables txaranga Aurreratik aterako da.
- 14:30** Gazte bazkaria karrapen.
- 18:00** Bertsolariak plazan;
- Maialen Lujanbio Zugasti
 - Aitor Mendiluze Gonzalez
 - Julio Soto Ezkurdia
 - Nerea Elustondo Plazaola
 - Joanes Illarregi Marzol
 - Xabat Illarregi Marzol
- Ondoren** goxokiak banatuko dira.
- 18:00** Jokuk herritik zehar Iruindarock elektrotxarangarekin.
- 19:30** Incansables txaranga eta buruhaundiak Aurreratik aterako dira.
- 22:00** Suzko zezena.
- 00:00** ESNE BELTZA plazan.
- 01:00** Incansables txarangaren erronda.
- 02:00** DJ sorpresa Atekabeltzen.





ABUZTUAK 14 ASTEARTEA

PESTA LAUGARRENA

08:00 Diana txistulariekin.

09:00 Entzierroa eta behiak plazan.

12:00 Umeentzako aparra plazan.

13:00 Txakolin dastaketa karrapen.

13:00 Incansables txaranga karrapen arituko da.

17:00 Zezenak plazan.

Ondoren goxokiak banatuko dira.

18:30 Zuzeneko musika emanaldia Aurrerako atarin.

Ondoren, Incansables txaranga eta buruhaundiak aterako dira.

19:00 Pilota partida profesionalak Amazabal pilotalekuan Asegarce-ren eskutik.

Agirre - Zabala / Peña II - Galartza

Olaizola II- Imaz / Bengotxea VI - Albisu

21:30 Suzko zezena.

22:00 Herri aparie plazan.

01:00 Incansables txaranga.



ABUZTUAK 15 ASTEAZKENA

PESTA BOSTGARRENA

- 08:00** Diana txistulariekin.
- 09:00** Entzierroa eta behiak plazan.
- 12:00** Herri kirolak plazan; Aizkolarik,
 - Jon Rekondo eta Julen Alberdi "Txikia"
 - Eneko Otaño eta Xabier Orbegozo "Arria V"
- 13:00** Incansables txarangaren erronda.
- 14:30** Aurrerako bazkideen bazkaria elkartearen.
- 18:00** Helduen entzierroa eta ondoren zezenak plazan.
- 19:00** Helduen ingurutxoak plazan.
Ondoren, goxokiak banatuko dira.
- 22:00** Suzko zezena.
- 23:00** SUAKAI taldea plazan.
- Ondoren,** "pobredemie" Incansables txarangarekin.



4 de Agosto, sábado

DÍA DEL REPARTO

- 14:00** Comida en el Aurrera.
16:00 Reparto del programa de fiestas.

5 de Agosto, domingo

DÍA DEL NIÑ@

- 09:00** Diana
10:00 Almuerzo de la corporación txiki
10:30 Encierro con toros con ruedas
Después Partidos de pelota en la plaza
11:30 Chupinazo
11:30-13:30 Hinchables y juegos
16:00-18:00 Hinchables y juegos
18:30 Actuación de los dantzaris txikis del Aurrera y después Ingurutxo txiki.
Después Reparto de caramelos
Después Gigantes.
20:00 Cabezudos
20:00-00:00 Joxe Mendizabal

10 de Agosto, viernes

VÍSPERA

- 11:30** Herri kirolak entre cuadrillas
13:00 Manifestación
13:30 Comida de los jubilados
14:00 Comida popular en el karrape
18:00 Chupinazo y entrega de premios
Después Kalejira con txaranga, gaiteros, txistularis, gigantes, cabezudos...
Después Actuación musical en el Aurrera.
22:00 Toro de fuego
23:00 TXIMELETA en la plaza
01:00 Charanga Incansables

11 de Agosto, sábado

SAN TIBURTZIO

- 08:00** Diana
09:00 Encierro y vacas
10:30 Después de misa, almuerzo en el karrape
12:00 Ezpatadantzaris
Después Partidos de pelota
13:00 Charanga Incansables
17:00 Bertsolaris de la escuela de Leitza en el Aurrera
18:00 Toros
19:00 Deporte Rural
19:30 Charanga Incansables
21:00 Ingurutxo abierto en la plaza
22:00 Toro de fuego
23:00 Concierto de KOBAN y KATEZ
01:00 Charanga Incansables

12 de Agosto, domingo

- 08:00** Diana
09:00 Encierro y vacas
11:00 Partidos de pelota en la plaza
12:00 Concurso de paellas
12:00 Gigantes
13:00 Charanga Incansables
17:30 Toros
19:00 Dantzaris del Aurrera
Después Reparto de caramelos
20:00 Rock Kalean
20:30 Charanga Incansables y cabezudos
23:00 Oihan Vega
03:00 Ingurutxo



13 de Agosto, lunes

- 08:00** Diana
- 09:00** Encierro y vacas
- 11:30** Txoro Txaranga
- 13:00** Charanga Incansables
- 14:30** Comida de los jovenes en el karrape
- 18:00** Bertsolaris en la plaza
- Después** Reparto de caramelos
- 18:00** Juegos por el pueblo acompañados por Iruindarock
- 19:30** Charanga Incansables y cabezudos
- 22:00** Toro de fuego
- 00:00** Esne Beltza en la plaza
- 02:00** DJ sorpresa en Atekabeltz

14 de Agosto, asteartea

- 08:00** Diana
- 09:00** Encierro y vacas
- 12:00** Espuma para los txikis
- 13:00** Degustación de txakoli en el karrape
- 13:00** Charanga Incansables
- 17:00** Toros
- Después** Reparto de caramelos
- 18:30** Concierto en el Aurrera
- Después** Charanga Incansables y cabezudos
- 19:00** Partidos de pelota profesionales en el frontón
- 21:30** Toro de fuego
- 22:00** Comida popular en la plaza
- 01:00** Charanga Incansables



15 de Agosto, asteazkena

- 08:00** Diana
- 09:00** Encierro y vacas
- 12:00** Deporte rural
- 13:00** Charanga Incansables
- 14:30** Comida de I@s soci@s del Aurrera
- 18:00** Encierro y vacas
- 19:00** Ingurutxo
- Después** Reparto de caramelos
- 22:00** Toro de fuego
- 23:00** Suakai
- Después** Pobre de mi con la charanga Incansables.



Oharrak

- 1 UDALAK ez du ZEZENKETAN gerta daitezkeen istripuen erantzunkizunik hartzen.
- 2 Egitaraua BORONDATEAREN truke banatuko da. Udaletxean eta liburudendetan salgai izanen da reparto eguna eta gero.
- 3 ZEZENETAN dabilzenei eskapabidea errezagoa egiteko, barreren gainean inor ez esertzea eskatzen da.
- 4 16 urtez azpikoek debekatua dute zezenetan ateratzea.
- 5 Arratsaldeko zezenen saioaren ondoren eta musika taldeak beren lana behar bezala burutzeko, OHOLTZA libre utzi.
- 6 Zezen suzkoan gerta daitezkeen erreketa edo bestelakoen kargu ez gara egiten.
- 7 Paella lehiaketarako oharrak:
 - Norberak bere sua eraman beharko du sukaldatzeko. Horretarako osagaiak ere norberak eraman beharko ditu.
 - Epai mahiak hartuko du erabakia.
 - Ondoren, nahi duenak bertan bazkaltzeko aukera izanen du. Mahaiak eta aulkiak bertan izanen dira.
- 8 Egitarauetako ekitaldi guztiak ez ditu Udalak bere gain hartzen. Hauek jende askoren BORONDATEZKO lanari esker lortu dira.

PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEN OHARRAK

- Plazaola Aldizkariaren antolatzaileek (Aurrera Kirol Elkarteak) ez dute zertan ados egon behar bertan argitaratzen diren iritzi ezberdinetako idatziekin.
- Lanak bidaltzen dituztenek beren izena jakinarazi behar die aldizkariaren antolatzaileari, sor daitezkeen arazo legalaz idazkien egileen arantzunkizuna izanen delarik.
- Gure eskerrik zintzoenak aldizkari hau osatzeko beren lanekin lagundu duten idazle/egile guztiei, azalaren lehiaketan parte hartu dutenei eta baita ere argazkiak utzi dizkiguten Karmele Agirre, Luze, Juan Mari Soro, Javi Aranburu eta Leire Karrerari BEJONDEIZUELA denari!!

TIBURTZIA DONEAREN PESTAK



PLAZAOLA LEITZAKO
ALDIZKARIA

"Lepezo" HAIZEA AZPIROZEN lana izan da irabazlea
ZORIONAK



LIHER FERNANDEZ, "2018 San Tiburtzio" lanarekin **ESKARRIK ASKO** parte hartzeagatik!

Kaixo bazkide eta herritar:

Dagoeneko urte bat pasatu da eta hemen gaude berriz denontzat pesta zoriontsuak izan daitezen opatzeko asmoz.

Urtea pasatu den hontan, berririk ez izatea da berririk onena, baina honek ez du esanahi Aurrerako bazkide talde edo komizioak geldirik egon direnik.

Talde bakoitzak lanean jarraitzen du bere egitasmoak aurrera ateratzeko asmoz eta horrez gain herri mailan aspalditik antolatzen diren ekintzak ere hortxe egon dira, urte hasieratik bukaera arte, urtarriletik abendua arte.

Ekintza guzti hauen artean urrian ospatzen den Aurrera eguna aipatu behar da, bazkide diren guztiei eskerrak emateko modu bat bezala antolatzen den jaia da eta bertan 358 bazkideei parte hartzeko gonbitea luzatzen zaie. Urtetik urtera bazkide gehiago biltzen dira eta ildo hortatik jarraitzeko asmoa dago, beraz aurten ere urrian hor izanen gara.

Laburbilduz eta gehiago ez luzateko, jarrai dezagun horrela Leitza herri bizi bat izan dadin sustatuz, eta horretarako denon laguntza eta borondatea eskertzen dugu, beraz berriz ere eskerrik asko bihotzez Aurrerako bazkide diren herritar guztiei eta musutruk lanean aritzen diren persona guzti hoiei.

Pesta zoriontsuak eta alaiak izan ditzazuela.

AURRERA KIROL ELKARTEA



ANE INTXAUSTIREKIN KONTU-KONTARI



2018ko Nafarroako Bardoen talde irabazlea. Erdian, Ane Intxausti Lasarte ageri da.

2018a urte oparoa izan da Leitzeko Bertso Eskolakoentzat. Batetik, Illarregitarrek lortutako txapelengatik (Mikel Laboa saria Joanesek eta Nafarroako eskolartekoa eta Berritxu saria Xabatek), eta bestetik Nafarroako Bardoen finalean Leitzako Aldatzea Komeni taldea nagusitu zelako. Xabat, Joanes, Luze eta Diego aritu ziren bertsoan eta Aitzol, Mikel, Iturri eta Ane antolaketan. Azken hau izan zen Leitzarren aurtengo berrikuntza nagusia, urteak bait ziren herriko helduen bertso-eskolan emakumezkorik ez zebilela, eta aurreneko aldia izan bait zen bat oholtza gainean kantari ikusi genuela. Berri pozgarri hau aitzakitzat hartuta, Ane ezagutu nahi izan dugu.

Nor da Ane Intxausti Lasarte?

Galdera ona. Ea elkarrizketaren bukaeran zuek ere erantzuteko moduan zareten.

Nola bertsozaletu ziñen?

Arituz. Bertsolaritza ematen hasi ginen hezkuntza arautuan eta irakasleak bertso-eskolan hasteko proposamena egin zidan. Nik proposamena onartu, eta bertso-eskolan hasi nintzen. Betidanik izan naiz kurioso xamarra.

Aurten Bardoetan parte hartu duzu. Nolako esperientzia izan da?

Bertso-eskolan hasi nintzenean Bardoak azken txanpan sartuta zeuden. Txapelketa hasieran Aldatzea Komeni taldearen saioak ikustera joaten nintzen arren, bukaeran, saioak ikustera joateaz gain, bertso-eskolan txapelketa prestatzen laguntzeko aukera izan nuen. Geroztik, beste modu batera bizi izan dut txapelketa. Finalean, gainera, beraiekin agurra prestatu eta abesteko aukera izan nuen, eta aspaldian sentitu gabeko urduritasuna eta emozioa bizi izan nituen. Asko eskertzen diet bertso-eskola-kideei beso-zabalik hartu izana.

Bestelako bertso-saiorik egin al duzu?

11 urterekin Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan parte hartu nuen lehen aldiz, baita azkenez ere. Eraitza onak lortu arren, esperientzi txarra izan baitzen jendaurrean aritzearena, eta ondorioz, bertsolaritza uztea erabaki nuen. Duela 4 urterarte. Orduan, hainbat arrazoi medio, berriro ere bertsoak idazteari ekin nion, eta aurtengo martxoan eman dut paperekotik bat-batekorako saltoa. Maiatz honetan izan dut berriro nire "lehen" sariketa. Oraingo honetan esperientzia hobea izan da eta ez da azkena izango!

Zein bertsolarirekin osatuko zenuke festetako seikotea?

Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Unai Agirre, Aitor Sarriegi, Aitor Mendiluze eta herriko bertsolariren bat. Bertsolariak adinako garrantzia du, ordea, gai-jartzaileak ere, eta lan hori egitera Amaia Agirre ekarriko nuke. Agurra abestera, aldiz, Karidadeko Benta hirukotea.

Nola dago bertsolaritza Leitzaldean? Eta emakumeen artean?

Bertsoa osasuntsu egon arren, mutilak dira jardunean diharduten denak. Datorren Nafarroako txapelketan Leitzaldean bertsoak bizi duen egoera gozoaren berri emanen dutela iruditzen zait!

Emakumeen artean, bestelakoa da egoera. Leitzako helduen bertso-eskolan, esaterako, ni naiz emakumezko bakarra, eta orain arte bat bera ere ez zen oholtzaratu. Beraz, egoera ona izan arren, bada zer hobetua.

Festetako saioetan, ordea, gazte gutxi ikusten ditut, eta horrek kezkatzen nau. Bertsolariak alferrik baitira bertsozalerik ez den tokian.

Bistakoa denez, eta aurreneko galdera erantzuteko Ane bertsozale izatetik aurreragoko pausoa eman duen herriko saltsera bat dugu. Ea ez den azkena! Millesker, Ane. Bukatzeko, bota zaiezu pestetarako agur bat leitzarrei:

*Itxaferoa, blusa,
ta txanpain botilla,
horrela hasten da
gure segidilla.
Bost egunetan zehar
a ze iskanbilla!
Etzaitezte etorri
hona pake billa...
Jaiaren gurpilla
ez zuk korapilla.
Neska nahiz mutilla,
errespetuz pilla.
Pesta denontzat pesta
izan dadilla! (BIS)*

UREPELEKO PAKITA

ATERALDI ETA IXTORIK

SEGARIK

Segapotoak kolgaduretik zintzilik, segak salako txokoan, segamalluk sega pikatzeko prest patuk. Tan-tan-tan-tan-tan... Udabiden egunero sega pikatzen. “Pestetarako sartuko bagiñoz belarrak! Bihar eguraldi ona egingen ote do? Gaur sukaldeko tximiniko keia zuzen yoan da gora eta ona egingen do. Eta gainera Martiuxek esan do etxeen badaukata iturrin aurkitutako izaye botillen uretan sartue eta botillen erdiraño igo dela izaye eta hori dela eguraldi ona datorren sifalea”.

Yendeak izaten zuen pantasie segan. Layerako bezala segarako ere bazen probalurre: Apezeneko belatsoa.

SEGA ETA HERIOTZA

Lehengo abade Luis Yabenek askotan esaten omen zuen kulpitutik: “Hemen badire segari onak. Belarra ongi ebaki eta belatsoa txukun uzten dutenak. Baina haiere ere non edo han belar izpiren bat gelditzen zaie ebaki gabe. Heriotzak ez. Heriotzak ez du bat bakarrik ere uzten”.

OSKURIDADEN PALDA BOTA

Segarik goizean goiz intzetan aritzen ziren segan eta belarra zutik bazegoen errexa izaten zen ebakitzeko erorie bazegoen edo sator lurrek baziren etzen giro izaten. Zeñek baño zeñek palda haundigoa bota ibiltzen ziren. Iriarteko Jaime segari ona zen eta behin hala esan zuen: “Gipuzkoan lanen aritu, etxera etorri, sega pikatu, belatze haundire yoan eta oskuridaden palda bota”.

BUSUNGO SEGARRIE*

Busungo segarriak bazuen fama segalarien artean. Gustuko zuten sega apustuak egiten zituztenak. Zorrotzaldi batekin sekuleko belar pille ebakitzeko omen zen. Busungo Joan Patxikuk ongi gordea edukitzen zuen segarri hori. Hiltzeko zorian zegoela etxekoek galdetu zioten ia non gorde zun segarri famatu hori eta eta esan zuen: “Ez do bela ailearrak estaliko”. Hala non gordetzen zuen esan gabe yoan zen mundu hontatik.

Eta orain dela hirurogeita bi edo hiru urte Busungo Joxek motikokoxkorra zela ganbarako armario batean aurkitu zuen segarri hori. Eta Tutankamonen hilobiaren aurkikuntzak baino soñu haundiagoa ateratu zuen. Herriz herri zabaldu zen segarri famatu hori aurkitu zutela.

Xeroren Praxkuk lau artantxu eman nahi zituen segarri horren truke baina Busungoek ez zuten onartu trukerik. Gero haurrek yostaketarako hartu zuten segarri hori eta hautsi egin zuten.

HARRI YASA

1947. urteko sanjoanak ziren. Artoak goroztu eta yorratu berriak eta mardul mardulek zeuden. Gaztañek gerban zeuden. Eguraldi ederra, urdin zen zerue. Inon ere etzen hodeirik ageri. Yendea izerdi patsetan ari zen belarren. Halako baten zardaye azaldu zen Kordaun aldetik. Berehala ereta eta han hementen izugarritzko harriyasa. Yendea laisterka estalpe bille. Artoak zizpildu zituen eta ixtorak kimatu. Eta kontsejuko tellatuko kristalezko leiho hori ere txikitu zuen. Zaharrek esaten zuten harri yasa haundik ezagutu zituztela baño hure añekorik ez.

HARRI YASA ETA ARROSARIOA

Beste behin alderdi baten harrie egin zuen baño beste alderdin etzun alerik ere bota. Alderdi hortako gizon batek hala esan zuen: “Beste lekutan ere gure alderdin añe arrosario errezatuko balitz ez luke harriarik iñen ez”. Hurrengo urtean gizon horren andrearen soñekoa garbitu eta lehortzeko sagar adarretik zintzilik yarrie zegoen eta harri yasa izugarrie egin eta soñekoa dena zizpildu zuen!

GURDIE ZIZTU

Belarra ebaki, zabaldu eta bueltak eman. Gero etxera eramateko gurdie kargatu. Gurdie ongi kargatu behar zen, atzeakargarik gabe eta aurreakargarik gabe. Eta kargatutakoan gurdie ziztu. Eta aldaparen bat behera yetsi behar bazen gurdie draga ematen zitzaion.

Bazen bat zaldar amorratue, zur leuntzen ez zekiena, tayuzko hesirik egiten ez zuena eta lanera-

ko batere arterik ez zuena. Behin hala esan zuen: “Nek gurdie kargatzen diit aitaren itteako”. Eta beste batek erantzun zion: “Bai baño hik gurdie huzten dok ziztu gabe eta hire gurdiko belarran erdie baño gehio estartako gaztain adarretan gelditzen dok!

LOPENeko LUIS KORDIONISTE

Lehen ere bazen Lopenen taberna, 1920. inguru hortan. Hangoa zen Luis, tabernarie eta soñu yotzallea. Astaitzagako Joxemartinen lagun haundie eta umore onekoa omen zen. Herri askotara yotzen omen zen soñu yotzea. Behin Doneztebera soñu yotzea yoan eta gaur oraindik ez da etorri. Gehiago ez omen zen haren berririk izandu. Zer gertatu ote zen?

***OHARRA:** Busun edo Musun? Orain dela hirurogei urte gehienek Busun esaten zuten. Baño ordun ere bazen nor edo nor Musun esaten zuena. Adibidez gure amak Musun esaten zuen. Etxalarren badira bi etxe izen: Buxunea eta Buxungo borda. Buxun hori “busunts” edo “burzuntz” zuhaitz izena (álamo temblón gaztelaniaz) hitzetik omen dator (iku omen zens. Pello Apezetxea eta Patxi Salaberri, “Etxalarko etheen izenak”, 64. orrialdea). Ordun esan liteke Busun dela baño etimologia hain da gauza zaila eta Musunek izan lezake beste beste esanahiren bat.



ASTAITZ

Esku-arteko haizeak

Esku-arteko haizeak

Egunkaria esku artean jasota,
ez dakit egunerokotasunaren zama
edo mundu zoro honen pisua jaso ote dudan.

Haizeak badabiltza han eta hemen,
Iparretik ala hegoaldetik, mendebaldetik zein ekialdetik,
nonahitik datoz haize maltzurak.

Gure mundua balantzaka dirau, noiz eta non eroriko ote den zain.
Mendebaldean, Donald Trump “gaixoak”, “haizealdiak” jota,
ile hori lakatua mugitzeko imintziorik egin gabe ere,
bortizkeria eta zapalkuntzaren parodia eginez,
menpeko gizartea sustatzen ari da.


Hegoaldetik iparralderantz, Europarantz,
zenbait gobernuk bidalitako haize gaiztoa jasotzen dute,
bizimodu hobearen ametsa betetzea datozen
milaka gaztek, umek, emakumek eta finean, gizarte honen desorekaren kumek,
itsasoan barrena norabideaz gal daitezten.

Ekialde aldean, haizeak basamortuaren lurraldeak bero astintzen ditu,
eta palestinarren israeldarren erasoei aurre eginez,
harriaren jaurtikiaren erritmoan mugitzen dira; harrigarria bezain ikaragarria.
Baina, hemen ere, ohituraren atzaparretan erorita, halaxe ikusten ohitu egin gara.

Han eta hemen, bortxaketa guztiak kontuan hartu beharra;
amorrazioa, ezintasuna eta halabeharrez, barne erraietan eta begietan negarra.

Honantz etorrita “Manadako” auzia,
ezpainetara datorkigu lege-gabezia,
oi tristezia, hauspotzen ari dira malizia;
non ote da halakoetan ere, neurrira den justizia?

Gogora datozkit Fermin Balentziak Larragako 14 urteko Maravillas Lanberto neskatoari
zuzendutako kantaren hitzak, hauek guztiz eta guztiak; bortitzak.
Aitaren aurrean bortxatu eta erahila,
zerri horien nahietara “kunetarik” gabeko lurrean etzana;
bizirik gabeko gorpu beroa, hilotz bihurtuta ...
1936an gertatu zen, eta 2018an oraindik ikasi gabeak agertzen gara.



Zoritzarreko egoerek bidea ematen dute,
emakume-gizonak kalera gaitzen, “*Nahikoa da*” oihukatzeko,
elkarri indarra emanez “horrela jarraitzerik ez dago” sentitzeko eta esateko.

Martxoaren 8an, hasita, emakumearen ahalduntzea exijituz,
edo Altsasuko gazteei jarritako neurririk gabeko zigorraren aurka azalduz.
Edota, Kataluniako “*procés*” inguruan sortutakoak salatuz.
Menpekotasuna ezarri nahi dutenean, beraietako hainbat atxilotuz, zigortuz,
jende asko eta asko azaldu da hori ez dela bidea aldarrikatuz.

Eta horretan ere, hemen ere esperientzia badugu,
halakoetan historia luzea daramagu.

Orain egoera berria
eta bestelako jarrera ikusteko premia.

Denontzat, ezin ukatu, aurrera jarraitzeko aukera,
ez da egoera berbera,
baina batzuk ez dute aldatu pentsakera, ez eta portaera,
ez dute egokitu nahi egoera berri honetara,
eta bitartean hainbatentzat jarraitzen du egoera minbera,
ezin hurbilduz, ezin itzuliz etxera.

Irriaren esperantza ezin galduz,
egunerokotasunaren zamak hartuz,
milaka galderak sortuz, haize freskoa bilatuz eta orriak pasatuz,
bizitzak gehiago ematen duela neure burua sinestaraziz eta nik sinestuz.

Jakinik beste hamaika arlo eta egoera dagoela aztertzeko,
eta hainbat galdera erantzuteko,
Egunkaria tolestu eta itxi dut gaurkoa amaitzeko.

Hasieran nioen moduan egunkaria esku artean jasota,
ez dakit egunerokotasunaren zama
edo mundu zoro honen pisua jaso ote dudan...

MIKEL I.

MAIZTER: MAGISTER EDO?..

Besteren onik ezin eraman duenak, beti bilatzen du okasioa. Eta ongi egina, inguru ernatzeko. Noskixego ere astakeriak esaten aritu omen da Patziku oraingoan ere *Leitzalarreko Unaiak* liburuan **maizter** hitzaren inguruan. Harritzekoa! Ja ja ja!...

Nahi duenak ikusi eta leitu, liburu batean jaso dago, Nafarroan barrena turista dabilen bi mila urteko euskararen historia. Eta nik, Peioren eskutik uste nuena Karlos Sagastibeltza kintoari esker jaso dut zorioneko NAVARRORUM berdaxka. Eta, bestetan beste, honela dio 43. orrian, 1167 urteko pergamino omen denak: *“Orti Lehorriz hará, como se dice en la lengua de los navarros **“unamaizter”** (ayudante de vaquero) y Aceari Umea hará **“buruzagi”** (pastor principal) a quien quisiere...”*.

Hozkia ematen dit testu horren bukaera hutsak: *“a quien quisiere”*. Baina hala bada, bego. Nik nahiago nuke, ordea, “unamaizter” hura “*mayora*” zela esana utzi zigun Mitxelena bizi balitz. Dibulgatzaileak horixe egiten baitu normalean: argitzen galanki kostatako matiz eder guziak irentsi eta zerriaska horizontala sortu, edo transbertsala, nahiago baduzu. Hitz batean: turista!

Eta ezin baduzu asma nire tonu bizia bera bezain bertikala, ikus honetaz *Leitzalarreko Unaiak* liburuan esandakoak, 58-66 orri bitartean. Baietz ba, ikusteko, merezi duela! Horiez gainera, 1591 urtean berutarrekin tratua ixtekoan ere han ageri baita *“Joanes de Soroa alias **maizterra**”, 227 orrian, gixajo honen oharra barren. Eta handik sei urtera, 284 orrian: “*María de Soroa, **mayoral de los bustos, del dicho año de 1597**”*. Ez ote dute erro berbera Soroko *maizter* eta *mayoral* horrek? Baietz uste nik, egungo senar emazteak bezalatsu, ja ja ja!...*




Martigartzineko (1551) eta Soroko (1591) maizterrak “mayoralak” ziren, bai.

Eta auzoan bertan berrogei urte atzera eginez, natorren orain **Sorotik Martigartzinera**, berriz ere 1551 urtean berutarrekin Arizko larrean egindako tratua ikustera (LUA, 3/4) : ... *“en el lugar de **veruete** en presencia de los testigos y de my el esno. infrascritos constituydos en persona **petri de yñarra** y **pedro de allo** jurados y vezinos del dicho lugar de veruete y **martin garçia** vezino de la villa de **leyça** y **mayzter** de ella”*.

Gaur oraindik **Martigartzinea** etxearen eta bordaren izena zor diogun jaun leitzar hark bost urterako tratua itxi zuen berutarrekin, eta honatx nola ageri den ondotik berriz ere dokumentu berberean: ... *“al dicho **martin garçia** de **Leyça mayzterr** de **Leyza** tanto para si como en vez y nombre de los vecinos y concejo de **Leyça** y para ellos y para **todo su ganado granado y menudo** con todos sus risgos (sic) y peligros de que se conçierten o dexen de conçertar e ygoalar como asta agora con los **seinores** del **busto de verastegui** o otros terçeros, es a saber por preçio de treze ducados de oro viexos moneda usual en este reyno de nabarra (...) los dichos çinco ainos montan setenta y çinco ducados (...) y tomados de **manos y poder** del dicho **martin garçia** pasaron a su poder los dichos de **veruete**”*.

Botere haundiskoa *morroi* bati emateko, lehengo Berastegikoak ere “*seinores*” zirela baitio, eta lehenagotik **martin gartzia** bera “*vezino*”. Zena zela, honatx azken pasarte honen hasierako faksimile puxka, gezurra arnas duten doktore horien kasta bereko juzka ez nazazun:



Berriro diot: **maizter** guziokin eta garaitsu berean ikusitako beste askorekin ni “**mayoral**” Mitxelenaren alde, nahiz Orixek esanaz gainera, ongi frogatua eduki, euskaldunon artean hagitz fama gaiztoko jito kasta zirela. Besteak beste Plazaolako trenbidea egiten ari zirela Leitizan bertan (LEE, 473) *kankarrota* haiek egindako azioak lekuko.

Baina otoi, ez pentsa printzesa liluratu zuen apo itsusiak dena badakienik. Nahi bai gixajoak! Hark baino askoz gehiago dakiten euskalari gorenei egindako galdera, erantzunik gabe baitauka oraindik: noiz eta nola irago ote zen **maizter** hitza *magister* izatetik *criado* izatera euskaldunon ahotan? Begien bistakoa baita lezio eder hori noizbait nozitu zuela gure hitz santu umilatuak. Eta **Maizterrena** nola esplika kastilanoz: “*la casa del inquilino*” edo “*la casa del mayoral*”? Segun eta noizkoa den, baina, ni seguru naiz, ongi aztertzen hasi ezkerro, deitura hori haragitua daraman euskaltzalea, *gutiuste* izatetik *haundiuste* izatera igo baietz, nolabait esan, honenbeste Perez euskaldun burumakur sumatuta, **Perurena** eta **Perez** gauza berbera direla esanda pozik uzten ditudanean bezalatsu, ja ja ja!... filologia fin konparatu aldetik bai behintzat.

Ojala besteren onik ezin eraman duen “*erudito*” horri, umore pittin bat txertatu banio. Eta okerrera egin badu, erruki diot San Tiburtziotan! Ja ja ja!...

LABAIENKO MAIZTERRAK

Iluntasunean argia



ILUSTRAZIOA: ITZIAR FAGOAGA IRURTIA
TESTUA: GARBIÑE SAGASTIBELTZA LIZARRAGA

*Goian bego konformitatea.
Har dezala atsedeen,
pake santuan, inpotentziak.*

*Lurpera dezagun
saminaren aztarna.*

*Ta eman diezaiogun buelta
eguneroko erritmo goxotik
ateratzen den guztiari,
ezinegon eta oinazeari,
zauri ta malko garratzei.*

*Hartu eskutik
eta indargabetu,
iluntasunean giltzapetu
ditzutenak,
gaittuztenok,
elkar zainduz, goxatuz,
ezinaren arantza errotik ateraz.*

*Aska ditzagun etsipenaren kateak,
Altsasukoak aske
argituko duen egunerarte!*

*Altsasukoak aske, literatura leihaketan,
poesian 2. Saria*

PESTETAN ERE ERRESPEUZKO HARREMANAK GUSTATZEN ZAIZKIGU



Orain dela hilabete batzuk, eskualdeko Berdintasun Batzordetik errespetuzko harremanen aldeko kanpaina jarri genuen abian Leitzan, Goizuetan, Areson eta Aranon.

Emakumeenganako indarkeria modu askotara eman ohi denez (kontrola, zeloak, hitz irain-garriak, gorputza baimenik gabe ukitzea, kolpeak, mehatxuak, mespretxuak, bortxaketak, erailketak...), honi aurre egitea **denon ardura** dela ulertzen dugu, erakunde publiko, elkarte, eragile, enpresa, establezimendu eta oro har herritar guztiona. Edozein eraso sexisten aurrean jarrera aktibo bat mantentzea funtsezko ariketa da.

HARREMAN SANOAK ETA INDARKERARIK GABEKO GUNEA

Kanpainari merezi duen jarraikortasuna eman nahirik, Leitzako pestetan **harreman sanoak** bultzatzen segitzea oinarrizkotzat hartzen dugu, eta batez ere horren aldarria zabaltzea. Indarkeriarik gabeko gunea, espazioak eta ekitaldiak garatzen eta sortzen jarduteak emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak gutxitzearen bidean pausu garrantzitsu bat suposatuko luke. **Leitza parekidea, berdinzalea, segurua eta justua nahi dugu.**

Leitzan ERASO
SEXISTARIK EZ!

Erasoa jasan edo ihusi baduzu...
DEITU!

GORA LIGOTEO SANOA!!

GORA ERRESPEUZKO HARREMANAK!!

ETA GOGORATU...

- Akozatzea ez da ligatzea.
- Dragak eta alkoholak ez dituzte erasoak justifikatzen.
- EZ BETI DA EZ.

Leitzako Berdintasun Batzordea

INFORMAZIOA

016 zenbakia

ARRETA PROTOKOLOA

112 zenbakia

SALAKETA JUDIZIALA

Foruzaingoa: 948 564 614

SALAKETA SOZIALA

Berdintasun batzordeko arduraduna: 686 660 812





PROTOKOLOA, ERAGILEEN LANKIDETZAREN FRUITU

Azken urteotan Leitzako Udalak, Berdintasun Batzordeak eta Pesta Batzordea osatzen duten eragileek, **eraso sexistarik gabeko herri bat eraikitzearen lanketan** jardun dute. Aurten ere eraso sexistei aurre egiteko protokoloa berrikusi eta egokitzeko konpromisoa hartu dugu. Guztiok norabide berean, koordinatuta, urratsak zehaztuta, erantzun azkarrak eta bateratuak emateko asmoz burubelari ibili gara lanean.

Horrez gain, **prebentzioak eta sentsibilizazioak** duten garrantziaz jakitun, pestetan material ezberdina sortu eta banatuko dugu, intentsitate ezberdineko erasoak identifikatzeko eta horiei aurre egiteko baliagarriak izan daitezkeela pentsaturik.

ETA ZUK, ERASOREN BAT JASAN DUZU EDO BEHATU DUZU?

Aurtengo gure helburuetako bat, askotan salatzen ez diren edota lagunarteko elkarrizketetan geratzen diren erasoengatik inguruko bilketa bat egitea litzateke.

Salaketa sozial orokor bat egin nahi dugu jasotzen ditugun istorioak eta datuak herritarrei zabaltzeko, isilpean geratzen diren ahotsak kaleratzeko.

Leitzako pestetan eta pestak igaro ondoren, **ikusi edo jasan duzun egoera hori kontatu eta sozialki salatzeko aukera** izango duzu. Horretarako, behean ageri den salaketa sozialaren telefonoa jarriko da eskuragarri. Datuak zabaltzeko momentuan, pertsonaren anonimotasuna eta intimitatea zainduko dugu. Beraz, parte-hartzeko gonbitea luzatzen dizuegu.

Ez isildu, ez izan konplize.

Leitzako Berdintasun Batzordea		Zer egin ERASO baten aurrean?	
Sexu eraso edo eraso fisikoa jasan baduzu		Erasoa ikusi edo laguntza eskatu badizute	
<ul style="list-style-type: none"> - Laguntza eskatu : Zurekin daudenei edo barran dagoenari. - Deitu 112 zenbakira : Arreta protokoloa aktibatuko da. - Bortxaketa kasuan : Ez garbitu eta ez aldatu arropaz. 		<ul style="list-style-type: none"> - Emakumearengana hurbildu eta galdetu ea laguntza behar duen. - Entzun, babes emozionala eman. - Intimitatea bermatu. - Erasotzaileari adierazi egoera gaitzesten duzula. Jai gunetik kanporatzen lagundu. - Intentsitatea baloratu eta 112ra deitu. 	

Deitu!



ERASO BAT JASAN EDO IKUSI BADUZU TELEFONO HAUEK ERABILI

Informazioa: **016**

Arreta protokoloa: **012**

Salaketa judiziala: **948 56 46 14**

Salaketa soziala (Berdintasun Batzordeko arduraduna): **686 66 08 12**



Ongi pasa pestak, gozatuz eta gozaraziz, etxeko ardurak banatuz, ligoteo sano bat praktikatuz, errespetuzko harremanak garatuz, gune seguru eta berdinzaleak sortuz.

LEITZAKO BERDINTASUN BATZORDEA





Gora San Tiburtziol!

LEITZAKIROLAK

☎ 948 610 976 - Elbarren, 36
www.leitzakirolak.com

❁ **SAGASTI** ❁
JATETXEA



GOSARIAK · KAXUELA · OGITARTEKOAK
BAZKARIAK · AFARIAK

ONGI IGARO PESTAK!

☎ 948 610 637 · Elbarren, 98 · LEITZA




Oinetakoak eta
Osagarriak
Bi Pauso

PESTA ONAK PASA ETA ERRESPEFUZ JOKATU

Elbarren 67, Leitza ☎ 948 513 611 · 680 187 853

haur arropak eta
oinetakoak
ondo pasatutakoak!
ESKERRIK ASKO!



KULUNKA 201409MAIL.COM
TEL. 948 513 620
UHARTE GOTZAIAN KALEA 1, BEHEA 4
LEITZA · 31990



Catalana Occidente Seguros

ONGI PASA PESTAK!

Elbarren, 67
☎ 948 610 051



Garbi
drogeria - lurrindegia

ONGI PASA PESTAK!

☎ 948 510 173 · LEITZA



Amaia
arraindegia
eguneko arraia



ONGI PASA PESTAK!

☎ 948 510 590 · Uharte Gotzaia · LEITZA

BIOK JANTZIAK

Gizonezko, emakume
eta umeentzako jantziak



☎ 948 510 460 / 948 510 477 · Elbarren, 32 · LEITZA

Jai zoriotsuak opa dizkizue

948 610 974



OGI BERRI

Ogi eta opil artisaunak



Ane Egizabal Llata
fisioterapeuta
CPS-C01824-1/09NA

- Erreabilitazioa
- Osteopatia
- Kirol eta zirkulazio masaia
- Erditze aurreko / ondorengo tratamendua



☎ 948 510 730 · Uharte Gotzaia, 8 / 3.C · LEITZA



MUSUNZAR OSTATUA

JATETXEA · LOGELAK

Ongi pasa pestak!

© 948 510 607 / 948 510 475 · Elbarren, 14 · LEITZA

AT SEDEN-GOZO
PINTXOAK, BOKATAK, PIZZAK...
BERTAN JATEKO eta BAITA ERAMATEKO ERE
www.facebook.com/atasedengozo
Landabekoa 1zk kalea - LEITZA - 948 610 572



ETXE TRESNAK S.L.

Etxe Tresnak S.L.

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · TELEKOMUNIKAZIOAK · ELEKTROGAILUAK

ONGI PASA PESTAK!

Tel./Faxa: 948 510 208 · Mugikorra: 650 928 838
etxetresnak@gmail.com · Elbarren, 45 · LEITZA



IDI HARAGITAN ETA HEMENGO
ZEKORRETAN ESPEZIALITATEA

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

© 948 510 747 / 948 510 467 · LEITZA



KIDE AHOLKULARITZA

kontabilitatea · autonomoak ·
enpresen sorrerak · zergak ·
autoen transferentzia · errenta aitortpenak
aholkularitza juridikoa · nominak
kontratuak...



ONGI PASA PESTAK!

Leitza: Landa ind. Suizpi 3 · © 948 510 990 · F: 948 510 429
Donostia: Tolosa hiribidea 5-2 / © 943 420 348

LEITZA GARAJEA Multimarka tailerra



STIHL AGENTZIA · NEKAZARI TAILERRA
SALEROSKETA

ia kriston pestak pasatzen ditugun!

© 948 510 466 / 948 510 404
Landa industrialdea · LEITZA



M^a Isabel Larraya

ONGI PASA PESTAK!

© 948 510 599 · Elbarren, 95 · LEITZA

GURIA KARROZERIAK TXAPA · PINTURA

P. KALDERON

Txapa: neurgailu elektronikoa ordenadorez, diagnosiak, bankaden neurria.

Pintura: labe kabina. Denetariko pinturak (ekolajikoak, uretara...).

Autogarbiketa: garbitzeko ur beroko makina, aspiragailua. Irekita egun guztia.

Berraldaketa: denetariko akzesorioak eta berreldaketak (lantalak, pilotoak, kateak...).

© 948 510 255 · Landa industrialdea · LEITZA

Ariztela

DEKORAZIO
TAILERRA

Kortinak

Telak, barrak, mekanismoak... eta kortinak egiteko pieza guztiak salgai

Ohe eta etxeko jantziak

Euskal jantziak

T. 948 610 611 / 666 458 791 · Landa industrialdea / Suizpi 3 · LEITZA

www.ariztela.tk · ariztela2010@gmail.com



**ZORTZIKO
LABETXEA**

KAFETEGI GOZOTEGI
ETA OKINDEGIA

- Ogi egin berria
- Prentsa, gosari goxo goxo (laranja zuku naturala, croissant eta kafea)
- Pastak, pastelak, tartak (enkarguak egun batetik bestera ekartzen dira)
- Zapora guztietako kukurutxuzko izozkiak



© 948 510 720 · Elbarren 20 · LEITZA

M. PLAZA · E. ARRUEPA

GORA SAN TIBURTZIO!

© 948 510 032 · Elbarren, 36 · LEITZA

CARNICERIA
Arzallus
HARATEGIA

Chistorra y productos artesanos de elaboración propia

Ongi pasa pestak! © 948 510 377 · Elbarren, 37 · LEITZA
© 943 683 042 · Etxe Aurrea · BERASTEGI

G@ZTETXO ZIBERGUNEA



INTERNETA
JOKOAK-SAREAN / JUEGOS EN RED
ESKANERRA
INPRESORA

© 948 510 741 · Elbarren, 16 · LEITZA



Perurena
HARATEGIA · CARNICERÍA
www.perurena.es

© 948 510 164 · Elbarren 51 LEITZA

Jai zoriontsuak opa dizkizue!

Belarra
BELAR DENDA

© 948 510 192 · Leitza



PERITZA
TABERNA

Pesta onak pasa
eta txintxo ibili

© 948 610 848
Elbarren, 23 · LEITZA



© 948 510 197
Elbarren, 67 · LEITZA

AiNART
LEAPANDOGIA

Olaia Bazar

LOREAK
PAPERTEGIA
JOSTAILUAK
HERRAMINTAK
ETXeko TRESNAK
JANTZIAK
GARBIKETARAKO
PRODUKTUAK

ONGI PASA PESTAK!

© 948 510 437 · Landa Behekoa, 3 · LEITZA



KAPRITXO

- Opariak
- Bitxiak
- Neska eta mutilen arropak

ONGI PASA FESTAK!

© 948 510 748
Elbarren, 19 · Leitza

MAIMUR

PRENTSA · OPARIAK · TESTU LIBURUAK
PLASTIFIKATZEAK · ENKUADERNATZEAK
INPRETA LANAK · FOTOKOPIAK

ONGI PASA PESTAK

Tel./Faxa: 948 510 146 · Herriko Plaza · LEITZA
maimurleitza@gmail.com

Allianz

ELKARLAN aseguroak

PESTA ONAK PASA!

Elgoien, 53 • LEITZA
Tel./Faxa: 948 510 490
jaione.alduntzin@allianzmed.es

- Autoak, etxeak, komertzioak, R.C, bizi eta baja aseguroak
- Pentsio planak
- Aurrezteko planak
- Kotxe transferentziak

Eskatu aurrekontua inolako konpromisorik gabe!

Bixigarri Leitza

landareak
ardoak
kontserbak
fruituak



677345496
628520682

bixigarri@hotmail.com

OIHANA ERBITI

ONGI PASA PESTAK!

© 948 610 636 · Lizarraga, 7 · LEITZA

JAURENA ESTANKOA

© 948 510 290

Elbarren kalea, 21 · 37880 LEITZA (Nafarroa)

BITXILORE LOREDENDA

- * LORE NATURALA
- * LORE LEHORRAK
- * EZKONTZETAKO LOREAK
- * KOROKIAK...

Ongi pasa pestak!

© 948 510 654 · Elbarren, 59 · LEITZA

© 948 510 273 · Elbarren, 67 behea · LEITZA · edrgunea@yahoo.es

MARCIA Z. CAMPOS MENDOZA

pesta onak opa dizkizue!

© 948 510 998 · Elbarren, 52 · LEITZA

Tel/Fax: 948 510055

Mail: f.hernandorena@yahoo.es



zurgin lan guziak

ATEAK · ZUREZKO LEIHOAK · LEIHO MISTOAK
TARIMAK · SUKALDEAK · ARMAIRU ENPOTRATUAK

Ongi pasa pestak!

© 669 70 79 16 · Goiko Errota · LEITZA

ZE GOXO!

FRUTAK ETA BARAZKIAK



Jai zoriontsuak denoi!

© 948 610 612



ENGLISH ACADEMY
TO LEARN. TO LAUGH. TO ENJOY!

TELFN 680273544

gaztelu scl
iturgintza

kalofakzioa · saneamendua · gasa

Tfnua: 948 510 086 · 948 510 156

Faxa: 948 610 856
LEITZA



Ongi pasa pestak!

Astiz
Liburudenda

948510262; Pentsa, liburuak, eskola gaiak
www.astizliburudenda@hotmail.com

GOXOGUNE GOXOKI DENDA



ONGI PASA
PESTAK!

AMAZABAL, 37 ☎ 661 543 953



Lopenea

LANDA OSTALA
HOSTAL RURAL

HABITACIONES Y
APARTAMENTOS

Elbarren, 47

☎ 688 64 08 34 - 606 27 35 34



Elbarren 71 31880 Leitza ☎ 948 683 134

Aniote
**MUGI ZAITEZ
GUREKIN!**
GOZATU PESTAZI!

AMAZABAL, 0 · ☎ 948 510 719 · kirola@leitza.net

miara
leapaindegia

Makilaje saloak ere egiten dira, aurrez hitzartuta

pesta onak pasa!

Kale Nagusia, 1 Behea
20492 Berastegi

tel. 943 683 697



LEIMEN

ERA GUZTIETAKO ELEKTRIZITATE LANAK

JAI ZORIONTSUAK DENOI!

LEITZA ☎ 628 725 396 (Argoitz)
MENDILLORRI ☎ 628 725 397 (David)



ARAKINDEGIA
jatetxea

Menua · Karta
garaien garaiko otorduak
ONGI PASA PESTAKII

☎ 948 510 052 / Faxe: 948 510 633
Elbarren, 42 · LEITZA



ZUBI

Polígono Usabal, 14 B
Tolosa (Gipuzkoa)
☎ 678 984 730
igorzubillaga@hotmail.com

FATXADAK ETA
BARNE DEKORAZIOAK



LAETXEA

PESTAK
ONGI
PASA!

ZURGIN LANAK

Ateak
Armairu enpotratuak
Tarimak eta parket mota guztiak

LANDAGOIKOA 15, 1. EZK. 627 015 754
31880 Leitza 687 989 195



FONTANERÍA
DANI
ITURGINTZA

Atzerantz 60mm 1/2 BENCHUPTZA
☎ 672 18 31 99
iturgintzadani@gmail.com
LEITZA

ONGI PASA PESTAK!

GURATZ-MENDI
ELKARTEA

ongi pasa pestak!



Landa Behekoa, 4 · LEITZA

ULI-ZAR
ELKARTEA, S.L.

iturgintza · calefazioa · gasa-gasoila
komuneko osagarriak · altzariak eta manparak

☎ 647 525 516 / 689 701 557
Bide-Ondo etxea · ARESO · Elgoien, 10 bajua **LEITZA**



CORENSO LEIZA S.L.

ONGI PASA PESTAK!



☎ 948 510 600 / 948 510 601 · Fax: 948 510 602 Eluseder industrialdea · LEITZA



AISLAN-LEITZA S.L.

poliuretanozko babes eta injekziozko isolaketa

☎ 618 915 943
Santa Luzia pas., 4 B behea · Buztintxuri · IRUÑA

Leitzako gasolindegia

RAFAEL MUGICAREN ALARGUNA

☎ 948 510 057

EROSLE supermerkatua

Gora San Tiburtzioak!



☎ 948 510 007 / 948 610 657 · LEITZA



ASTIZ ANAIAK ZURGINDEGIA

era guztietako egur lanak,
ateak, leihoak, tarima,
armairuak eta kristaldegia

Ongi pasa bestak!

☎ 948 610 606 / 948 510 285



EGUZKI ileapaindegia

ASUN ETA LIDIA

ongi pasa pestak!

☎ 948 610 649 · Elbarren, 34 / 1 A · LEITZA

MAPFRE LEITZA

Gerardo Arrupea Plaza

ongi pasa pestak!

☎ 948 510 499 · garrupea@mapfre.com



BEATRIZENEA

taberna · jatetxea

menua · otartekoak · kaxuelitak · pintxoak

PESTA ONAK IGARO!

☎ 948 510 991 · Mikel Deuna, 2 · LEITZA

MENDIGORRI ELKARTEA

pesta onak igaro!

Patxi Arrazola · Leitza

OLIVEIRA - VICENTE ERAIKUNTZA

ONGI PASA SAN TIBURTZIOAK!

☎ 629 418 431 / 606 307 810
Amazabal, 17 3. B · LEITZA

DAIKE

obrak · etxebizitzak · erreformak · aurrekontuak · proiektuak

☎ 688 911 229 / daike@hotmail.com

pesta onak izan

Urto karrozeria



TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK
JESUS AZURMENDI JAUREGI

ONGI PASA
SAN TIBURTZIOAK!

☎ 943 683 499 / 948 610 664
Kamineros etxea · BERASTEGI

Pintura lanak
erokorrean



© 609 873 178 · LEITZA




Done Mikel, 1
© 948 610 909

eta zabalik!



JEIKI ABESBATZA

© 606 393 842 · jeiki.leitza@gmail.com

Gora Santiburtzloak



**BULDAIN
inmobiliaria**

FESTA EDER HAUETAN
ZUEN NAHIAK BETE
DITZAZUEN OPA DIZUET

<http://buldain.blogspot.com>
© 948 510 534 / 649 476 615 · LEITZA

Txoko taberna

pintxoak · otartekoak · kaxuelak

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

garaiekin

proiektuak
neurketak
inspektzioak
zertifikatuak
aurrerantzeak
obren kontrola
aholkularitza

607204485
garaiekin@hotmail.com



ORAIN ELKARTEA

jai zoriontsuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei

LEITZA

**Gaztañaga
taberna**

OTARTEKOAK · PINTXO BEROAK · KAXUELAK

© 948 610 708

ongi pasa pestak!



DABID BARRIOLA

TAXI-a

© 679 715 169
LEITZA

Ongi pasa
pestak!

LEITZALARREA S.L.

aroztegi metalikoa

© 948 510 598 / 669 368 991
Landa industrialdea, 20 · LEITZA

ARIZTIMUÑO ANAIK ERAIKUNTZAK

Lan orokorrak eta berrikuntzak

ONGI PASA PESTAK!

☎ 948 510 202 / 948 510 374 · LEITZA

Plaza aseguruak

MOTA GUZTIETAKO ASEGURUAK

JAVIER RAZKIN CALDERON

Pesta onak pasa ditzazuela!

☎ 948 510 338 · Uharte Gotzaia, 8 · LEITZA



bilagunleitza@hotmail.es

Tel./Fax: 948 610 985 · Iñurrista Industrialdea / P2 · LEITZA

Arantxa

ILEAPAINDEGIA

GORA
SAN TIBURTZIOAK!



☎ 948 610 931 · Huarte Gotzaina, 8

GORRITZ

ERAIKUNTZAK · ESKABAZIOAK

SANTIBURTZIO ONAK PASA!!!

☎ 948 510 140 · Fax: 948 510 996 · LEITZA (NAFARROA)

Arrixenea



PESTA ONAK PASA!

**APARTAMU
RURALA**



607 655 061
678 477 528

Elbarren, 16
LEITZA

www.arrixenea.com



☎ 948 610 888 / 630 048 770 · Fax: 948 610 863
Eluseder industrialdea, 1 · Areso (Nafarroa)

**Jose maria
etxeberria**

gizonezkoentzako ileapaindegia

Caro San Tiburtzioak

jm 948 510 282 · LEITZA

**CARLOS
SAGASTIBELTZA
VILLANUEVA**

ARKITEKTU TEKNIKOA

Proiektuak · Aurrekontuak
Berrikuntzak · Obren kontrola
Lur neurketak · etab

948 610 677 · 629 611 912

Ongi pasa San Tiburtzioak !

Dia

**OKABIO
KAFETEGIA**

SUPERMERKATUA

PESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!

☎ 948 510 731

Landa etxea · Leitza

DENAUTO SAGASPER TAILERRA

AUTO KONPONKETA



Eluserder Industrialdea
Poligono Industrial Eluserder

Tel.: 948 510 610
Faxa: 948 510 917

31876 ARESO
(Nafarroa)

tantada
iturgintza 

Imanol Echeverria 680 255 718
tantadaiturgintza@gmail.com

ERAKUSKETA
Elbarren kalea 51 Leitza (Nafarroa)

AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORRA
AEROTERMIA
EGUZKI PLAKAK
LURREKO SUAK

EGURREZKO GALDARAK
PELETTEKO GALDARAK ETA ESTUFAK
BIOMASA
ZORU BERO-EMAILEA
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Kornieta elkartea

Ongi pasa
San Tiburtzioak!

LEITZA


FERRETERIA - PENTSUAK

Pesta onak
pasa!

Tel. 948 513 600
Landa industrialdea, 13
31880 LEITZA (Nafarroa)

Lorea
ileapaindegia

☎ 948 610 907
☎ 699 115 986
Inaziobarun etxea
Elbarren 98, Leitza

Asador Jotexeo



Galartza III

31879 BARAIBAR (Nafarroa)



Pesta zoriontsuak opa dizkizue!

Tel. 948 504 456 / 948 504 387
asador@galartza.com
www.asador.galartza.com

l e i
t z a
r r a
Leitzarra taberna

© 948 510 352 · Leitza



TALLERES

Ireber S.L.

ONGI PASA PESTAK!

MANTENIMENDU PREDIKTIBOA
INDUSTRI MAKINERIAREN MONTATZE ETA KONPONKETA

Landa Industrialdea - Pab. 9B - 10B Leitza
Tel. 948 510 842 - 639 134 464 - Fax. 948 510 843



Leizako Udalak

PESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

leitzarrei, bisitariei eta gurekin
egon ezin ahal izanen duzuen guztiei.

PESTETAKO GASTUEN ZERRENDA 2018KO AURREKONTUA

PLAZAKO MUSIKA	18.335 €
ORKESTA GIZONA	825,00 €
TXIMELETA	2.800,00 €
KOBAN	2.180,00 €
KATEZ	970,00 €
ROCK KALEAN	2.300,00 €
ESNE BELTZA	4.840,00 €
SUAKAI	2.540,00 €
OIHAN VEGA	1.880,00 €
KIROLAK	3.600,00 €
HERRI KIROLAK	3.600,00 €
UMEENTZAT	
PUZGARRIAK	1.800,00 €
TXOROTXARANGA	1.650,00 €
SUZKO ZEZENA	800,00 €
BESTELAKO PROGRAMAZIOA	14.240,00 €
BERTSOLARIAK	1.840,00 €
PILOTARIK	600,00 €
GAITEROAK	900,00 €
TXISTULARIK	900,00 €
INCANSABLES	10.000,00 €
ZEZENAK	15.844,00 €
ARKITEKTUAREN ZIURTAGIRIA	200,00 €
ASIER ARRIZABALAGA	6.050,00 €
GIZARTE SEGURANTZA	320,00 €
HONDARRA BILTZEKO MAKINA	470,00 €
HONDARRA ETA PORTEA	854,00 €
MAPFRE (ERANTZUNKIZUN ZIBILA)	1.600,00 €
MAPFRE (ISTRIPUAK ETA BALIEZINTASUNA)	500,00 €
MEDIKUA ETA ANBULANTZIA	5.500,00 €
UKULLUN ALOKAIRUA	350,00 €
OTORDUAK ETA OSTATUAK	8.000,00 €
DANTZARI TTIKIK	400,00 €
HERRI APARIA	3.500,00 €
TXAKOLIA	500,00 €
JUBILATUEN BAZKARIA	1.500,00 €
OTORDUAK ETA OSTATUAK	1.500,00 €
SAN TIBURTZIO EGUNeko HAMEIKETAKOA	600,00 €
PROGRAMA ETA PUBLIZITATEA	2.150,00 €
PROGRAMA	2.000,00 €
PROGRAMA LEHIAKETAREN SARIA	150,00 €
BESTELAKOAK	13.500,00 €
ARGINDARRAREN KONEXIOA ETA GASTUA	1.000,00 €
GARBIKETA	2.500,00 €
LANGILEEN APARTEKO OTORDUAK	1.500,00 €
SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES	1.240,00 €
SOINU- EKIPOA	7.260,00 €
GUZTIRA	79.919,00 €



JAIETAN ERE
izan zaitez zu



KATTALINGUNE
Servicio LGTB Zerbitzua



Kattalingorri
nafarroako • lesbiana • gay • bisex • trans de navarra

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

SUBVENCIONA INSTITUTO NAVARRO PARA LA IGUALDAD
NAFARROAKO BERDINTASUN INSTITUTUAK LAGUNDUTA

JAIETAN ETA BELDURRIK GABE **ERE** **LIBREAK**

